

## **Beste domina bat Martinentzat**

[Egile ezezaguna]

*Berrria*, 2004-10-05: IV.

*'Egunkaria' itxi ondoko gurutze-bidea lasai hartu zuen Martin Ugaldek, beti*

Kontu guztiak blokeatuta dituela joan da Martin Ugalde. Madrilgo epaile baten aurrean deklaratzeko moduan ote zegoen jakiteko hamaikagarren txosten medikuaren zain. Ez diote bake hori eman nahi izan.

Juan Del Olmo epaileak atzera bota zuen, 2004ko otsailaren 16ko autoan, Iñigo Iruin abokatuaren eskaria blokeoa altxatzeko edo Ugalde bera *Egunkaria*-ren kontrako prozesutik kanpo uzteko. Epaileak beste txosten bat agindu nahi zien auzi-medikuei, "interesatuaren osasunaren garapena ikusteko". Epaileak bazuen jada Auzitegi Nazionaleko bi medikuren erabakia; han esaten zuten Ugaldek "anomalía fisiko eta psikikoak" zituela deklaratu ahal izateko, baina epaileak txosten mediko gehiago nahi zituen, 82 urteko gizonaren "garapena" ikusteko.

"Familiatik kanpo kezka handia nabari izan dugu, eta haserrea eta amorrua. Eta beldurra, zergatik ez esan. Eta tristura ere ikusi dugu, asko. Baina gure familiaren inguruan ez da horrelakorik izan. Aita, batez ere, ez zegoen kezkatuta honekin. Bere kezka zen euskal prentsaren proiektua, eta hori ez zuen arriskuan ikusten".

Unai Ugalde Alemanian zen *Egunkaria*-ren aurkako operazioa gertatu zenean. Atzerrian, aita inputa zezaketela jakin zuenean. Hots egin zuen etxera, ea itzultzea nahi zuen. "Aitak erantzun zidan ezetz, lasai zegoela. 'Hemen ez da ezer gertatuko', esan zidan". Asko bizi izan dutenen lasaitasuna izan du Ugalde sendiak.

## **Duintasunari eustea**

2003ko otsailaren 19an, Martinen diru kontuak epailearen aginduz blokeatuta zeudela jakin zutenetik, ardura berezia izan dute denek: duintasunari eustea. Anamari andreak inork baino hobeto irudikatuko zuen, telebistan, operazioa gertatu eta aste batzuetara: lasai bizitzeko eskubidea eskatuko zuen, berarentzat eta Martinentzat. Errespetua aldarrikatuko zuen, "gure kulturarentzat, gure hizkuntzarentzat eta gure nortasunarentzat".

Ez zen keinu hutsa. Juan Del Olmo epaileak, autoetako batean, garbi bota zuen mehatxua. "Zantzu guztien arabera, ekintzok egin dituzte lehendik inputatutakoek, dagoeneko hilda dauden batzuek eta, bere egoeraren arabera, inputatzeko zain dagoen beste batek". "Beste bat" hori Martin Ugalde zen.

Jakin zutenean, Anamariren lehen burutazioa osasun egoeraz txosten medikoa lortzea izan zen. Martin pattal baitzegoen. Txostena bidali zion epaileari, baina hark

Irungo auzi-medikuari beste txosten bat agindu zion apirilaren 8an. Martin Ugaldek bere etxean jasan behar izan zuen, 81 urte zituela, ezagutzen ez zuen mediku baten artatze sakona. Ondo onartu zuen dena, trabarik-eta jarri gabe. "Berak bazekien ez zuela inolako erantzukizunik, egoera deliktiborik-edo ez zegoela", dio Unai semeak. Are gehiago, asko jasan duenarena ere atera zitzaion, behin baino gehiagotan. "Oso argi jarraitu du dena, hasieratik oso ganean egon da. Eta batzuetan barre egiten genuen, eta esaten zidan: 'Hauek zer nahi dute, niri beste domina bat jarri hala?'".

Prozesatua izateko arriskua zen domina.

### **Erreakzio handia**

Asko ikusi dutenarena. Ugalde sendiak, urte eta erdi luze honetan, gogoan izan du, ondo gogoan, duela hogeita hamar bat urte antzeko egoera pairatu behar izan zutela, Venezuelako erbestea atzean utzi nahian Euskal Herrira iritsi zirenean. Martinen bila joan zirela etxera, indarrez. Orain, horixe izan dute buruhauste nagusia. Ez zezatela Martin eramanez. Horregatik, diruen gaineko blokeoak-eta, horrek ez ditu gehiegi arduratu senideak. "Berehala ikusi genuen oso erreakzio handia izan zela gure familiaren inguruan, eta horrek babes handia ekarri zigun".

Anamari andrea izan da, akaso, kezka gehien izan duena. "Amak bazuen arrangura, ea zerbait gehiago egiteko kapaz izango ote ziren, zalantza hori beti hor: nahiz eta gaixorik egon ea kapaz izango ote ziren etxera etortzeko. Ez genuen uste hori egingo zutenik, baina prozesu honek hainbeste gauza arraro ekarri dituenez... Baina, beti, jakinez ez zutela ezer ateratzeko".

Ez dira gutxi izan bere bizitza osoa Euskal Herriaren alde eta euskararen alde eman duen gizonaren kontrako ankerkeria salatu dutenak. Ohorea, duintasuna hitzak entzun dira askotan, Martin Ugalderen egoeraz hitz egin izan denean. Familian garbi dute.

"Gu ez gaude kezkatuta honekin egindako kalte moralaren inguruan. Aitak esaten zuen 'Ohorea ekarri nahi didate?'. Hau da, egindako moduarengatik, beraiek definitu dute dinamika. Ezer ez egitea zen, gure ustetan, egin zitekeen gauzarik onena, eta eman zitekeen erantzunik onena. Eta horrela jokatu dugu. Aitaren lasaitasuna, gainera... Euskal prentsa zen bere buruhaustea, eta alde horretatik ere lasai. Berak esaten zuen ikusten zuela kemen handia, eta gogoia ere bai. Aurrera egingo zuela".